ULERMENA TEST BIDEZ 1

1.- *Hezkuntzako profesionalei dagokie aldaketarako proposamenak bultzatzea, ikastetxeetan berdintasunaren gaia lehentasunezkoa izan dadin.* Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?

a) Ikastetxeetan lehenagoko gaia da berdintasunarena, horregatik bultzatu behar dute profesionalek.

b) Berdintasunaren gaia aldatzeko, ikastetxeetan profesionalek aldaketarako proposamenak bultzatu behar dituzte.

c) Profesionalak aldatzeak lehentasunezko gaia izan beharko luke ikastetxeetan berdintasuna lortzeko.

d) Ikastetxeetan berdintasunaren gaiari lehentasuna emateko, profesionalek proposatu behar dituzte aldaketak.

2.- *'Telelana' terminoak zuzeneko edo zeharkako komunikazioen bidez enpresatik kanpo lan egitea adierazten du, hau da, ...*

a) enpresan bertan burutu beharko da lana.

b) datuek erakusten dutenez, langintza hori ez dago oso hedatua.

c) zenbait tokitan telezentroak antolatzearren lana hobeto egiteko.

d) lanak eragiten dituen joan-etorriak komunikazioek ordezkatzen dituzte.

3.- *Bizilagun bakoitzak kilo bat hondakin sortzen du eguneko. Beste herrialde batzuekin alderatuta, kopuru oso altua izan ez arren, goranzko joera argia da.* Zer esan nahi du esaldi horrek?

a) Beste herrialdeetan ere hondakinak sortzen direnez gero, hondakinen kopurua gorantz doala.

b) Beste herrialde batzuetan baino hondakin gutxiago sortzen dugula, baina areagotzen doala.

c) Sortutako hondakinen kopuruak beste herrialdeekin alderatzeko, hondakinek gorantz egin behar dutela.

d) Hondakinen kopurua beste herrialdeetan sortzen dena baino altuagoa izanik ere, ez dutela uste gorantz egingo duenik.

4.- *Zenbaiten ustez, giza eskubideak hutsaren hurrengo dira hainbat herrialdetan*. Zer esan nahi du esaldi horrek?

a) Batzuen ustez, giza eskubideek ezer gutxi balio dutela zenbait tokitan.

b) Zenbaiten ustez, giza eskubideak akatsez josita daudela leku batzuetan.

c) Leku batzuetan ez dakitela giza eskubideen definizioa zein den.

d) Zenbait tokitan giza eskubideak ez direla lehengoak.

5.- *Herrialde garatuetan gizentasuna gaixotasun arrunta bihurtzen ari da, ...*

a) demagun, gero eta pertsona argal gehiago ikus daitekeela.

b) horregatik, elikadura orekatua izatea ez da hain garrantzitsua.

c) bizitzeko ohiturek eta ariketa fisiko urriak eraginda.

d) modu batera edo bestera jendeak dieta egin nahi duelako.

6.- *Sexuen arteko parekotasuna lortzeko egiten diren aurrerapenak oso mesedegarriak izan daitezke sexu indarkeria saihesteko*. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?

a) Sexuen arteko berdintasunean aurrera egitea probetxugarria izan daiteke sexu indarkeriaren aurka.

b) Sexu indarkeriari aurre egiteko, sexuen arteko berdintasuna lortzea ez da onuragarria.

c) Sexuen arteko parekotasuna saihesteko, mesedegarria izango litzateke aurrerapenak lortzea.

d) Sexu indarkeria baztertzeko, balio gutxi dute sexuen arteko parekotasuna lortzeko egin diren

aurrerapenek.

7.- *<u>Hamar langiletik beherako enpresek daukate eskarmentu gutxien</u> Internetekin zerikusia duten arloetan*. Zer esan nahi du azpimarratutakoak?

a) Hamar langile baino gutxiagoko enpresek dutela zigorrik gehien.

b) Hamar langile baino gehiago behar direla eskarmentua edukitzeko.

c) Hamar langile baino gutxiago izanez gero, eskarmentua txikiago izango dela.

d) Hamar langile baino gehiago dituzten enpresek dutela esperientzia gehien.

8.- *Aurretik abiatutako hausnarketa-prozesuaren emaitzak jaso eta etorkizunerako baliagarri bihurtzeko asmoz, bertsolari elkartekoek batzarra egingo dute*. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?

a) Aurretiko hausnarketak bildu eta etorkizunerako balio dezaten, bertsolari elkartekoak batzartu egingo dira.

b) Lehenagotik abiatutako hausnarketak etorkizunean baliagarri izango direnetz jakiteko asmoz, bertsolari elkartekoek batzarra egingo dute.

c) Bertsolari elkartekoek bilera egingo dute hausnarketa prozesua abian jartzeko eta etorkizunari begira baliagarri bihurtzeko asmoz.

d) Bertsolari elkartekoek bilera egingo dute prozesua abiatzeko eta emaitzak jasotzeko asmoz.

9.- *Zenbait tokitan euskararen galera larria da; batzuek ukatu egiten dute, baina ez da sumatzen egoerak hobera egingo duenik*. Zein da esaldi horren <u>BALIOKIDEA</u>?

a) Zenbait tokitan euskara egoera larrian dago, eta batzuek ezetz esaten badute ere, ez dirudi egoera hobetu denik.

b) Euskararen egoera zenbait tokitan larria bada ere, batzuek egoera hobetu daitekeela sumatzen dute.

c) Zenbait tokitan euskararen egoera hobetuko dela sumatzen delako, batzuek galera dagoela ere ukatu egiten dute.

d) Euskararen egoera larria da zenbait lekutan, horregatik egoerak hoberantz baino ezin du egin.

10.- *....., baina Europa ekialdeko herrialdeetan eta Asia erdialdean ari da bizkorren zabaltzen gaitza*.

a) Afrikari egin dio minik handiena HIESAk

b) 1,4 milioi pertsona bizi dira hiesak jota Europan

c) Minuturo gutxienez ume bat kutsatzen da GIB birusaz Asian

d) GIB birusa duten umeen %95ek ez du inongo tratamendurik jasotzen

11.- *Euskarako ikastaroetara joateko baimena ematea zuzendaritzaren ardura izaki, egokiena interesdunak zuzenean hara jotzea da*. Zein da esaldi horren <u>BALIOKIDEA</u>?

a) Baimena emateko ardura zuzendaritzarena izateko, egokiena zuzenean hara joatea da.

b) Baimen eske zuzenean zuzendaritzara jotzea da egokiena, ardura beraiena baita.

c) Baimena emateko ardura duzunean, zuzenean zuzendaritzara jotzea da egokiena.

d) Baimena ematea zuzendaritzaren ardura izanik, egokiena zuzenean zuregana jotzea da.

12.- *Goierritarren etorkizuneko erronka eskualdeko naturaren eta ekonomiaren bilakaera orekatua da*. Zein da esaldi horren <u>BALIOKIDEA</u>?

a) Naturak eta ekonomiak bilakaera modu berdintsuan izatea da Goierritarren apustua etorkizunean.

b) Goierritarrek oreka bilatzen dute naturaren eta ekonomiaren etorkizunean.

c) Goierri eskualdearen erronka, natura etorkizuneko ekonomia bilakatzea da.

d) Goierritarrentzat, etorkizunean natura modu orekatuan ekonomia bihurtzea da garrantzitsuena.

ERANTZUNAK: 1D 2 D 3B 4A 5C 6A 7D 8A 9A 10A 11B 12A